



Arartekoaren nazioarteko jarduera

**Arartekoaren Europako eta Nazioarteko
Gaien Bulegoa
2021eko urria**



**www.ararteko.eus
international@ararteko.eus**

ARARTEKOAREN NAZIOARTEKO JARDUERA

Arartekoaren nazioarteko jarduera defentsa-erakundeen nazioarteko sarearen bitartez eta giza-eskubideetan eskudunak diren nazioarteko erakundeekin lankidetzan garatzen da. Arartekoak nazioarteko jarduera hau hedatu du, eta horretarako, informazioa eta jardunbide egokiak elkartrukatu eta ekarri ditu, ikerketa-lanak eta txostenak egin ditu nazioarteko beste defentsa-erakunde batzuekin lankidetzan, topaketak antolatu ditu nazioarteko beste aktore batzuekin edo esparru horrekin loturiko kontuak Euskadin hedatzeko aktoreekin; txosten eta adierazpenak egiten parte hartu du; edo ekitaldietan parte hartu du, hitzaldiak aurkeztuz, mintegietan esku hartuz edota nazioarteko lantegiak moderatuz. Arartekoa lankidetzan aritu izan da hainbat sare eta erakunderekin eta horietan parte hartu izan du. Jarraian, sare eta erakunde horiek aipatzen ditugu.

Defentsa-erakundeen nazioarteko sareak

[Ombudsmanaren Nazioarteko Institutuak](#) mundu osoko 200 herriaren defentsa-erakunde biltzen dituen elkarte bat da. IIOaren barruan, Arartekoa modu desberdinetan inplikatu da: 2018an, Gasteizen herriaren defentsa-erakundeek ingurumenaren babesaren esparruan duten zereginaren inguruko batzar bat antolatu zuen. 2019an eta 2020an zehar, Europar bakarrik dauden haur eta nerabe atzerritarren babes-zerbitzuen inguruko txosten bat egin zuen, Herbeheretako eta Greziako herriaren defentsa-erakundeekin batera gauzaturiko proiektu baten baitan. Lan honen emaitza hitzaldi batean aurkeztu zen IIOaren Batzar batean, 2021eko maiatzean, eta Europar Batasuneko Oinarrizko Eskubideen Agentziak antolatutako Oinarrizko Eskubideei buruzko Foroan, 2021eko urrian.

[Herriaren Defentsa-erakundeen Europako Sareak](#) (ENO) Europar Batasuneko eta Batasunean sartzeko hautagaiak diren estatuetakoko defentsa-erakundeak biltzen ditu, eta [Europako Herriaren Defentsa-erakundeak](#) koordinatzen du. Arartekoak modu desberdinetan parte hartu izan du sare honetako jardueretan: lantegiak moderatu ditu Europako Defentsa-erakundeak antolatzen duen urteroko topaketaren batean, herriaren defendatzailearen ikerketetan kolaboratu du informazioa aurkeztuz, eta hitzaldiak emanez parte hartu du lantegietan.

[Ombudsmanaren Iberoamerikako Federazioak](#) (FIO) Latinoamerikako, Karibeko eta Iberiar Penintsulako herriaren defentsa-erakundeak lotzen ditu. Arartekoa sare honetan inplikatu da, ekarpenak eginez sarean topaketa batzuetan eta emakumeen eskubideen egoeraren inguruko lan-taldeetan.

[Haurren Defentsa-erakundeen Europako Sarea](#) (ENOC, ingeleseko siglengatik) haur eta nerabeetan espezializatutako defentsa-erakundeak barne hartzen ditu, edo gai horren inguruko departamentu bat duten defentsa-erakundeak. Europako Kontseiluko herrialdeetara hedatzen da. Arartekoak bertan parte hartu du, urteko topaketetan

hitzaldiak emanez. Era berean, behin baino gehiagotan parte hartu izan du Sareak urtero argitaratzen dituen azterlanak eta adierazpenak egiten, gai espezifikoan ingurukoak. Parte-hartzerik garrantzitsuenaren ENOCek koordinaturiko [Kontseilari Gazteen Europako Sarearen](#) bidez (ENYA, ingeleseko siglengatik) gauzatu da. Sare hau ENOCeko kide diren defentsa-erakundearen haurren eta nerabeen batzordeetatik datozen nerabeez osatzen da, eta bere eginkizuna da ziurtatzea ENOCen lanak Europako nerabeen ikuspuntua izan dezala. Arartekoaren Haurren eta Nerabeen Batzordeak ENYArekin parte izan da azkenengo lau urteetan.

[Mandatarik Linguistikoen Nazioarteko Elkarteak](#) (IALC) elkarbizitzen duten hizkuntza ofizialen edo hizkuntza gutxituen hiztunen eskubideetan espezializatutako eta beren jardueretan eskubide horien defentsa barne hartzen duten herrialde desberdinetako hamaika defentsa-erakunde biltzen ditu. Erakunde honen baitan, Arartekoak parte hartu du, mahai-inguruetan hitzaldiak eginez edo liburu kolektibo bateko kapitulu bat idatziz.

Beste erakunde batzuekin lankidetzaz

- **Naciones Unidas:** Nazio Batuak: Arartekoak puntualki kolaboratu izan du Nazio Batuetako bulego edo erakunde desberdinekin. Esate baterako, informazioa aurkeztu izan dio Haurren Eskubideen Batzordeari Espainiako Estatuak Haurren Eskubideen Konbentzioaren betebeharrekin betetzen duen gainbegiratze-zikloetako batean. Era berean, informazioa aurkeztu dio Etxebizitza egokia izateko eskubideari buruzko Nazio Batuetako errelatore bereziari bere bi azterlanetarako, eta Giza Eskubideen aldeko Nazio Batuetako Goi Mandatariaren Bulegoak munduko herriaren defentsa-erakundearen egoera aztertze aldera prestatutako galdetegiei erantzun die.
- **Europar Batasuna:** Arartekoak Europar Batasunaren kontsultetan parte hartu izan du. Adibidez, Oinarrizko Eskubideen Gutunarentzako Europako Batzordearen estrategia berriaren harira egindako kontsultan parte hartu zuen. Ekarpenean, Arartekoak Oinarrizko Eskubideen Gutunaren erabilerarekin trebatze aldera erakundeko langile aholkularien artean egiten ari den barne-prestakuntza azpimarratu zuen. Batzordearen amaierako txostenarekin batera aurkeztu zen ekarpenen laburpenean, Arartekoaren prestakuntza hori etorkizun handiko praktikatzat jo zuen. Bestalde, Arartekoak, Europako Batzordeak Haurrentzako Berme bat sortzeko egin zuen proiektuari egindako ekarpenak aurkeztu zituen. Era berean, kontsulta batera gonbidatu zuten Arartekoa Zuzenbide Estatuari buruzko Europako Batzordearen Komunikazioaren prestakuntza-esparruan.
- **[Europar Batasuneko Oinarrizko Eskubideen Agentzia:](#)** EBko Oinarrizko Eskubideen Agentziak (FRA, ingeleseko siglengatik) Europar Batasuneko giza-eskubideen esparruan erreferentzia den zentroa da. Agentziak azterketak eta inkestak egin ohi ditu Europa-mailan, intereseko kolektibo jakin batzuen (ijitoak, LGTBIQ pertsonak, genero-indarkeriaren biktime diren emakumeak) egoera ezagutzeko, edo oinarrizko eskubideei buruzko Europako legeria nola ezartzen ari den aztertzeko (hala nola

datuak babesteko araudia, delitu-biktimen eskubideei buruzko araudia edo terrorismoaren kontrako borrokari buruzko araudia). FRAk, era berean, Europar Batasuneko beste erakunde batzuk aholkatzen ditu oinarrizko eskubideen esparruan, eta giza-eskubideen inguruko gai berrien (adimen artifizialaren erabilera egokia, esaterako) azterketaren buru da. FRAk harreman estua izan nahi du tokian tokiko giza eskubideak betetzen direla zaintzeko ardura duten erakundeekin, hala nola Arartekoarekin. Hori dela eta, Arartekoak FRAk Agentziaren lan-planari buruz egindako hainbat kontsultatan parte hartu du, eta terrorismoaren aurkako Zuzentarauaren aplikazioari buruzko azterketan ere lagundu du (oraindik ez da argitaratu).